

EPLE KIROL KLUBA

PREBENTZIO ETA JARDUERA PLANA COVID 19aren AURREAN

Protokolo hau klubeko zuzendaritza batzordeak onartu du, 2020ko Irailarenaren 28ko bileran.

1. APLIKAZIO ESPARRUA

Protokolo hau klubak antolatzen dituen eta foru-aldundiaren eskola kiroleko programen esparruan garatzen diren era guztietako jardueretan aplikatu behar da, hau da, lehiaketa, irakaskuntza, detekzio, jolas edo kirol eta cultura jardueretako saioetan. Era berean, erakundeak eskola kiroleko programetatik kanpora antolatzen dituen eta foru aldundiak baimenduta dauden jardueretan ere aplikatuko da.

2. KLUBAREN OSASUN ARDURADUNA

Klubaren zuzendaritza batzordeak III eranskinean zehazten den pertsona izendatu du klubeko osasun arduradun gisa (aurrerantzean KOA), protokolo honen aplikazio esparrurako.

Protokoloaren arduradun teknikoa izango da eta berak zainduko ditu horren dinamizazioa eta funtzionamendu egokia. Bere funtzioak aipatu eranskinean zehaztutakoak izango dira.

3. MASKAREN ERABILERA

Zuzendaritzako kideek, teknikariek, laguntzaileek, pilotariek, gurasoek edota tutoreek maskarak uneoro osasun agintariek ezarritakoaren arabera erabili beharko dituzte. Eta, zehazki:

TEKNIKARIAK

- ✓ Entrenamendu saioetan eta lehiaketetan uneoro erabili beharko dituzte.

PILOTARIAK

- ✓ Entrenamendu saioetan ez dute nahitaez erabili beharko kirola egiten ari diren bitartean, beroketa barne.
- ✓ Entrenamendu saioetan nahitaez erabili beharko dute kirola egiten ari ez diren bitartean.
- ✓ Entrenamendu saioetako hitzaldi teknikoetan, teknikariek erabakiko dute erabili behar ote duten, beti ere iraupena kontuan hartuz. Edonola ere, pertsonen arteko segurtasun tartea uneoro errespetatu beharko dute.
- ✓ Entrenamendu saioetara oihalezko poltsa bat edo antzeko bat eraman beharko dute norbere maskara sartzeko; poltsak izena jarrita izango du nahasketarik izan ez dadin.
- ✓ Lehiaketetan erakunde antolatzaileak ezarritakoa beteko da.
- ✓ Lehiaketetarako joan-etorrietan osasun agintariek ezarritakoa beteko da, uneoro.

4. ESKUEN HIGIENEA

Ziurtatuko da pertsona guztiek eskura izango dituztela etengabe jardueraren lekuan eta leku komunetan (sarrerak, komunak, jantokiak, etab.) ura, xaboa eta eskuak lehertzeko papera, eta, ahal bada, gel hidroalkoholikoak.

5. JARDUERAK: ENTRENAMENDUAK ETA LEHIAKETAK

Debekatu egongo da Jarduerak edo lehiaketak egiten diren aldi berean ez da jarduera ludiko edo komertzialik antolatuko.

ENTRENAMENDUAK

- ✓ Entrenamendu saioetara hamabost lagun joango dira, gehienera, zuzendaritza kideak eta teknikariak barne.
- ✓ Ahal den heinean, talde egonkorak eratuko dira, hau da, kide berez osatutakoak.
- ✓ Entrenamendu talde bakoitzak bere ordu zehatza izango du frontoian sartzeko. Dena den, taldekideek sarreran itxoin beharko dute egoitzako arduradunak sarrera baimendu arte. Entrenamendu saioa amaitutakoan frontoitik alde egin beharko dute.
- ✓ Pilotariak kirol arropa jantzita azalduko dira entrenamendu saioetara, oinetakoak ezik, frontoian bertan aldatu ahal izango dituztenak. Eskuak edo beste gorputz atalak babestekoak ere jarrita iritsi beharko dute. Bestelako erreminta xistera eta abarrak bezala, norberaren erabilerarako izango dira, hau da, ezingo dira elkartrukatu.
- ✓ Entrenamendu saioetako pilotak klubak jarriko ditu.
- ✓ Entrenamendu saioetan ura edateko atsedanak egingo dira, izerdia lehortzeko ere baliatuko direnak.
- ✓ Pilotari bakoitzak bere botila ura eta bere toila erabiliko du. Ezingo dira elkar trukatu eta markaren bat izan beharko dute gainontzekoengandik bereizi eta nahasketak ekiditeko.
- ✓ Ezin da txisturik bota lurrera. Pilotariren batek botako balu, teknikariak kargu hartuko dio. Bigarren aldia berriz eginez gero entrenamendua utzi beharko duela jakinaraziko dio eta hirugarren batean botaz gero, entrenamendutik kanporatuko du.
- ✓ Entrenamendua amaitutakoan norberak sortutako hondakin guztiak, norberak jaso eta eramango ditu, gainontzekoenak ukitu gabe.
- ✓ Entrenamendu saioak amaitutakoan, erabilitako pilotak teknikariak jaso eta desinfektatuko ditu.

- ✓ Ez dira baimenduko kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak edota despedidak.
- ✓ Orokorrean, aldagelak ezingo dira erabili, egoerak hala eskatzen duenean izan ezik (eguraldi txarra denean, beste herri batzuetan bizi diren haurrak eta joan-etorri luzeak egin behar dituztenak daudenean, etab.). KOAk ezarriko ditu neurri honen salbuespenak.
- ✓ Aldagelak erabili behar izanez gero, babes arauak eta pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatuko duen sistema bat ezarriko da. Txandak egiten badira, jarduerak garatzeko ezarritako azpitaldeak hartuko dira kontuan.
- ✓ Frontoian ezingo da egon entrenamendu taldeetako kide ez den ikuslerik edo beste inor.
- ✓ Pilotari adingabeei entrenamenduetara laguntzen dieten pertsonak instalazioetako sarrerako ateetan utziko eta jasoko dituzte.
- ✓ Ahal den guztietan, joan-etorriak modu aktiboan egitea (oinez, bizikletaz, patinetez) eta banaka edo, hala ezin bada, familia-unitatearen arabera egitea gomendatzen da.

LEHIAKETAK

- ✓ Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritakoari jarraituko zaio. Edonola ere, lehiaketetan ezingo da ikuslerik egon.

6. COVID-19ko KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

a) Familiak eta gainontzeko pertsonala

COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat duten —adibidez, 37^otik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa— pilotariak eta erakundeko gainerako kideek ezingo dute kirol-jarduerara joan, ezta COVID-19a diagnostikatu dietelako bakanduak daudenek, edo COVID-19aren sintomak dituen edo diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari direnek ere.

Pilotarien gurasoek edo tutoreek, kirol-jarduera dagoen egun bakoitzean, hau hasi aurretik, pilotari horiek COVID-19aren sintomarik ez dutela egiaztatu eta ziurtatu beharko dute. Halaber, etxeko norbaiti (adingabeari edo beste pertsona bati) COVID19a diagnostikatu badiote, kirol-erakundeari eta norberaren erreferentziako osasun-zentroari ohartarazi beharko diete eta, hala badagokio, ardurapean duten seme-alaba edo adingabea etxean eduki beharko dute. Lanordutik kanpo bada, eta premiazko sorospena beharrezkoa bada, hau da Osakidetzaren Larrialdietako telefonoa: 943 461111.

b) Kluba, COVID-19 baieztatutako kasuetan

Klubeko pilotari edo pertsonaleko kide batek COVID-19an positibo ematen duenean, KOAk kasua Osakidetzako zerbitzuetara deribatuko du, dagozkien osasun-protokoloak aplikatzeko. Halaber, KOA osasun-agintaritzaren (aztarnariak) esku jarriko da eta, hala badagokio, berekin harremanetan izan diren pertsonen informazioa emango du.

c) Kluba, COVID-19 sintomak jarduera aurretik badira

Zuhurtasun-printzipio gisa, entrenamendu, saio bat hasi aurretik, kirol-talde bateko pertsona batek sukarra edo COVID-19aren sintoma argiak dituen kasuetan, entrenamenduak bertan behera geratuko dira, KOAk, osasun-agintariekin harremanetan jarri ondoren, oniritzia eman arte.

d) COVID-19 sintomak jardueran zehar

Kirol-jardueran zehar gaixotasunaren sintomak (sukarra, eztula, arnasteko arazoak, etab.) agertzen badira, jarduerari lotutako teknikariek KOAri jakinaraziko diote. Honek, berriz, kirolariaren familia abisatuko du kirolaria jasotzera joan dadin. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan baloratuko da egoera. Baloratu arte, pertsona bakandua mantenduko da. Gaixotasunaren sintomak kirol-erakundeko gainerako pertsonetan agertzen badira, haiek ere etxera joan beharko dute eta gomendio berberak bete beharko dituzte.

KOAK, egoera zein den ikusita, une horretan bertan jarduera bertan behera geratuko den edo aurrera jarrai dezakeen aztertuko du. Bigarren kasu horretan, jardueraren teknikariei prebentzio eta higiene neurriak zorrotz ditzaten eskatuko die: kontakturik gabeko jarduerak eta pertsonen arteko distantziak handitu, maskararen erabilera derrigortu (intensitate txikiko jarduerak gauzatzea), eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiene-neurriak maiztasun handiagoz hartzea, etab. Teknikariek muturreko neurri horiek euren kabuz hartu beharko dute, kutsatzeko aukera edo arrisku txikiena dagoela uste dutenean.

e) Familiekin eta erakundeko beste pertsona batzuekin komunikazioa

Klubaren barruan gertatutako COVID-19ari lotutako kasu edo egoera baten aurrean, familiei edo erakundeko beste eragile batzuei jakinarazi behar dietenean, jakinarazpen hori, kasu bakoitzaren arabera, osasun-agintariek edo klubak berak egingo dute. Bigarren kasuan, jakinarazpena KOAK egingo du beti (ez teknikariek).

7. PROTOKOLOA ETA HARTUTAKO NEURRIAK HEDATZEA ETA EZAGUTZEA

Pilotarien familia guztiei eta erakundearen egitura osatzen duten pertsona guztiei, langileak eta boluntarioak, mezu elektronikoz bat edo whatsapp bat igorriko zaie, protokoloa erantsiz. Mezuan, protokolo hau onartu dela jakinaraziko zaie eta protokoloa bera modu eraginkorrean aplikatzeko laguntza eskatu.

Pilotarien familia guztiei mezu elektronikoz edo whatsapppean eskatuko zaie seme-alabak osasun eta higiene neurriez informatu eta berauek betetzeko garrantziaz jabetuarazteko. Era berean, "Prebentzio-neurriak eta parte-hartze baldintzak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua" (IV eranskina) helaraziko zaie, jarduerak hasi aurretik sinatu eta klubari entregatu diezaioten.

Teknikariei hitzaldi bat emango zaie, neurri guztiak ezagutzera emateko, haien papera eta konpromisoa oso funtsezkoa dela azaltzeko, neurriak betetzen ez diren kasuetan ezarriko diren zigorren berri emateko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Era berean, “Prebentzio-neurriak eta parte-hartze baldintzak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua” (V eranskina) emango zaie, jarduerak hasi aurretik sinatu eta klubari entregatu diezaioten.

Lehen entrenamendu egunean klubeko teknikariek pilotariei bete behar dituzten prebentzio eta higiene neurri guztien inguruko azalpen xehatua emango diete.

Klubaren erabakiz edo agintari eskudunen arau edo ildo berrien ondorioz protokoloan egiten den edozein aldaketaren berri eraginpean dauden pertsona guztiei emango diete posta elektronikoz edo whatsapppe. Halaber, aldaketak oso garrantzitsuak badira edo hasieran hartutako neurriak asko aldatzen badituzte, bilera telematikoak egin ahal izango dira aldaketa horiek azaltzeko. Gerora, aldaketa horien berri kirolariei eman beharko zaie, zuzenean familien eta teknikarien bitartez.

8. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Hilero Zuzendaritza Batzordearen bilera bat burutuko da, gutxienez. Bilera horietako gai zerrendan COVID-19ari aurre egiteko erakundearen jarduketak eta egoera baloratzeko puntu bat ezarriko da. Gai hori jorratzeko garaian KOA bertan egongo da.

KOA astero bilduko da teknikariek, egoeraren balorazioa egiteko, neurriak zuzen aplikatzen ari direla ziurtatzeko, behar izanez gero egokitzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Asteko lehen entrenamendu saioan teknikariek pilotariekin balorazio labur parte-hartzaile bat planteatuko dute, COVID-19ari aurre egiteko neurrien funtzionamendua aztertzeko eta, hala badagokio, jarrerak eta jokabideak zuzentzeko.